

Geografia

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK



**Unibertsitatera
Sartzeko Ebaluazioa**

UPV/EHU

2017



Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

Probaren balorazio orokorra 10 puntukoa izango da:

1. Ariketa praktikoa: 4 puntu.

Kontuan hartuko dira mapak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea.

2. Gai bat garatzea: 4 puntu.

Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

3. Kontzeptu geografiko batzuk definitzea: 2 puntu.

Kontzeptu bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke. Definizio bakoitza 0tik 0,5era kalifikatuko da.

Kontzeptuak argi eta zehatz definitzea hartuko da kontuan.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

La valoración total de la prueba será de 10 puntos:

1. Prueba práctica: 4 puntos.

Se valorará la correcta elaboración de los mapas, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

2. Desarrollo de un tema: 4 puntos.

Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

3. Definición de conceptos geográficos: 2 puntos.


Cada concepto debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas. Cada definición se valorará de 0 a 0,5 puntos.

Se valorará la claridad y precisión de las definiciones.



A AUKERA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko ibai nagusien eta isurialde hidrografikoaren kokapena mapan (4 puntu).




Iturria: www.geo.euskadi.eus

2. Turismo-jardueraren bilakaera eta garrantzia Espainian. (4 puntu).
3. Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
 - Nekazaritzako ustiategia (0,5 puntu)
 - Goi-teknologiako industria (0,5 puntu)
 - Migrazio-saldoa (0,5 puntu)
 - Zabalgunea (0,5 puntu).

B AUKERA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko adin-piramidearen iruzkina. (4 puntu)



Iturria: Instituto Nacional de Estadística INE

- 2 Espainiako klima mota nagusien sintesia (eta eremu klimatiko bakoitzari dagozkion landaretza motak). (4 puntu)
- 3 Kontzeptu hauen definizioa (bakoitzeko 5 lerro, gehienez):
- Deslokalizazio industrialia (0,5 puntu)
 - Konurbazioa (0,5 puntu)
 - Modelatu karstikoa (0,5 puntu)
 - Abeltzaintza intentsiboa (0,5 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoen iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

Irizpide espezifikoak

A AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

- Identifica la diversidad hídrica de España.
- Localiza en un mapa de España las principales cuencas fluviales.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Kontuan hartuko da bi isurialde hidrografikoak (atlantikoa eta mediterranea) ondo kokatzea eta ibai hauek jartzea:

Isurialde atlantikoan: Bidasoa, Oiartzun, Urumea, Oria, Urola, Deba, Artibai, Lea, Oka, Butroe, Nerbioi, Ibaizabal, Kadagua eta Barbadun.

Isurialde mediterraneoan: Zadorra, Baia, Arakil, Ega, Omecillo, Ihuda eta Jugalez.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

- Identifica las características del sector terciario español.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

1960ko hamarkadatik garapen turistikoa handia eta, gaur egun, munduko bigarren turismo-herrialdea jasotako bisitari kopuruaren eta turismoaren diru-sarreraren arabera.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Lehen turismo-eredua: “eguzkia eta hondartza” izaerako masen turismoa. Turismo-eskaintza ugaria eta merkea, eskari homogeen eta masiboari zuzendua, erosteko ahalmen ertaina edo ertain-txikia zutenei zuzendua, udan pilatuta eta Balearretako, Kanarietako eta Mediterraneoeko kostaldeko eguzki- eta hondartza-inguruetan kontzentratua. Eredu hori sendotu zuten faktoreak: Europako mendebalde eta hegoaldearen garapen ekonomikoa, garraioen aurrerapena, hurbiltasun geografikoa, baliabide natural eta kultural bikainak, kostu txikia, azpiegiturak eta zerbitzuak egotea, nazioarteko harremanen normalizazioa eta jomuga turistikoaren eskaintza Estatu-politika bezala. Beste ezaugarri batzuk dira, halaber, turismoaren merkaturatzean nazioarteko operadoreen mende egotea eta jardueraren ingurumen- inpaktuarekiko axolagabetasuna.

1973 eta 1985 bitartean, krisialdia izan zen eskaintzaren arazoengatik: prezioak garestitu egin ziren inflazioaren eta soldata-igoeren eraginez, baina zerbitzua, azpiegiturak eta ingurumenaren kalitatea ez ziren handitu, eta eskaintza ez zen egokitu eskakizun berrietara (turismo-modalitateen dibertsifikazioa), kontuan izanda, gainera, oporrak urtean zehar banantzen zirela eta Europako biztanleria zahartzen ari zela. Turismo-jomuga lehiakide berriak agertu ziren.

Azken hamarkadetan, turismo-eredu berri baterantz doa sektorea: kalitatezko eskaintza, erosteko ahalmen handiagoa duen eskari berezitu eta urriagora bideratua, hobeto banatuta denboran eta espazioan, turismo-modalitateen dibertsifikazioa. Oraindik erabat ezarri ez den eredu honen faktoreak: eskaintzaren kalitatea, dibertsifikazioa, sustapena eta ingurumen-jasangarritasuna.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Nekazaritzako ustiategia: titular edo enpresari baten ardurapean dagoen produkzio-unitate ekonomiko-teknikoa, nekazaritzako produktuak ekoizten dituen.

Goi-teknologiako industria: ezagupenen etengabeko berriztatzeak (beste teknologia batzuetan baino askoz handiagoa), oinarri teknologiko sendoak eta konplexutasun-mailak definitzen dute; benetako ahalegina eskatzen du I+G arloetan.

Migrazio-saldoa: leku jakin bateko eta aldi jakin bateko immigrazioaren eta emigrazioaren arteko balantzea adierazten duen indizea. Emaitza negatiboa bada, adierazten du emigrazioa handiagoa dela; positiboa bada, immigrazioa handiagoa da.

Zabalgunea: burgesiak eskatzen zuen eta zoru urbanizatu egokia ez zuten hirien zabalkundeari erantzuna emateko sortutako hiri-plangintza.



B AUKERA

1. galdera (praktikoa): puntuazioa 0/4.

- Comenta la pirámide actual de la población española

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Piramidearen forma eta haren esanahia adieraztea
- Adineko populazioan: emakumeen pisu handiagoa beren bizi-itxaropen luzeagoa dela eta. Sartune bat 75-79 urte-bitartekoan: Gerra Zibilaren ondoriozko belaunaldi hutsak.
- Helduen artean: heldu-gazte (35-54 urte) belaunaldien zabaltasuna, pertsona gazteen immigrazioak lagundutako jaiotzaren hazkundera dela eta (*Baby boom* [1956-1965] urteetan eta hurrengoetan jaiotako belaunaldiak dira).
- 1975. urtetik aurrera, belaunaldien txikiagotzea ugalkortasunaren eta jaiotzen jaitsiera handia dela eta.
- Azkenaldian, jaiotza-tasaren berreskuratze bat, oso xumea, piramidearen oinarriko zabaltze txikian nabarmentzen dena. Berreskuratze horren zergatiak.

2. galdera (teoria): puntuazioa 0/4.

- Describe los climas de España enumerando los factores y elementos característicos.

Estándares de aprendizaje evaluable, Orden ECD/1941/2016

Dauden barietate guztiak bereizi eta kokatu behar dira. Bakoitzari buruz, kokapena eta izen zuzena emateaz gain, elementuak, erregimenak eta faktoreak adierazi beharko dira.

- a) Klima ozeanikoa: penintsulako iparraldean eta ipar-ekialdean. Prezipitazio ugariak eta erregularrak (800 mm baino gehiago urtean); anplitude termiko txikia, uda moderatuak eta negu leunak; barnealderantz, handitu egiten da anplitude termikoa. Hosto erorkorreko oihana, belardiak eta zakardiak.
- b) Klima mediterranea: Balear uharteak eta ia Iberiar penintsula osoa hartzen du. Prezipitazio urriak eta irregularrak (300 eta 800 mm artean urtean); uda lehorrak. Oihan iraunkorra eta era askotako sastraka motak. Barietateak: b1) Itsasaldeko mediterranea: Mediterraneoko kostak, hego-ekialdekoa izan ezik, hegoaldeko kostak atlantikokoak, Balearrak. Anplitude termiko moderatua; prezipitazio gehiago hegoaldeko kostak atlantikoan (neguan) Mediterraneoko kostan baino (udazkenean du maximoa); b2) Mediterraneo kontinentala: penintsulako barnealdean, Ebroen haran ertaina izan ezik; prezipitazio urriak, handixeagoak mendebaldean (Extremadura), txikiagoak Gaztelako depresio



- guneetan, euri-erregimen ekinokziala; anplitude termiko handiagoa; b3) Mediterraneo lehorra, estepakoa: penintsulako hego-ekialdean eta Ebroren haran ertainean; 300 mm baino gutxiago urtean; estepako klima hotza Ebroren arroan eta estepako klima beroa hego-ekialdean.
- c) Mendiko klima: 1.000 metrotik gora, altitudeak eragindako baldintza termiko eta plubiometrikoen aldaketak. Urtean 1.000 mm baino gehiagoko prezipitazioak; tenperaturen jaitsiera, negu hotzak. Landaredi-maila bat baino gehiago.
- d) Kanarietako klima: subtropikala; d1) itsasbazterrekoa: kosta-zerrendak 500 m-ko altituderaino; 350 mm baino gutxiagoko prezipitazioak urtean; oso anplitude termiko txikia urtean zehar; d2) "hodeitza"koa, altitude ertaineko zerrenda edo tarteetan, 600-1.500m inguruan; prezipitazioa 500 eta 1000 mm artean, gehiago iparraldeko isurialdeetan hegoaldekoetan baino; d3) altuerakoa, prezipitazioa gutxiago; negu hotzak, anplitude termiko handiagoa. Landaredi maila bat baino gehiago.

3. galdera (kontzeptuen definizioa): puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

Deslokalizazio industrialia: industria bat (osorik edo haren faseetako bat) bere jatorrizko kokalekutik, beste toki batera (hiria, eskualdea, herrialdea, kontinentea) eramatea, produkzio-kostuak murrizteko (soldatetan, zergetan, etab.) eta, hala, etekinak handitzeko. Globalizazioari lotutako praktika bat da.

Konurbazioa: Bi hiri edo gehiagoren hazkunde autonomo eta paraleloa, berekin dakarrena hiriak batzea eta hiri-aglomerazio bakar bat izatera iristea. Haren ezaugarria da espazio urbanizatu jarraitu bat izatea, zenbait zentro independentez osatua.

Modelatu karstikoa: uraren eraginez eta CO₂-aren eraginez kareharrizko arroken desegite-prozesuen ondorioz eratzen den modelatua.

Abeltzaintza intentsiboa: ahalik eta denborarik laburrenean eta ahal den espaziorik txikiena erabiliz, ahalik eta abelburu gehien edo produktu gehien (esnea eta arrautzak) ekoiztera bideratutako sistema. Haren ezaugarri nagusiak hauek dira: arrazak hautatzea, teknika modernoak aplikatzea, merkatuaren eskaria aztertzea, eskulana erabiltzea eta estabulazioa.